

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	FABRIKAZIO MEKANIKOKO PROZESUETAKO ANTOLAKUNTZA (Zeharkakoa)	Iraupena	30
		Espezifikoa	
Kodea	UF0178		
Lanbide-arloa	FABRIKAZIO MEKANIKOA		
Lanbide-eremua	Eraikuntza metalikoak		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Eraikuntza metalikoetako ekoizpena	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Fabrikazio mekanikoko prozesuen gainbegiraketa eta kontrola (Zeharkakoa)	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Ekoizpen eta mantentze-lan mekanikoetako prozesuen gainbegiraketa eta kontrola (Zeharkakoa)	Iraupena	60
	Fabrikazio mekanikoko prozesuetako laneko arriskuen prebentzioa eta ingurumenaren babesa (Zeharkakoa)		30

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0592\_3ko LB2 lanbide-burutzapenarekin: FABRIKAZIO MEKANIKOKO EKOIZPENA GAINBEGIRATZEA.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Komunikazio-ereduak eta jendea zuzentzeko ereduak aztertzea, talde-lana eta lankidetzak hobetzeko.
- EI1.1 Lan-ingurunean komunikatzeko teknikak deskribatzea.
  - EI1.2 Negoziazio-teknikak azaltzea.
  - EI1.3 Zuzendaritza-kasu praktikoetan, ezaugarriak behar bezala zehaztutakoetan: bilerak eraginkortasunez gidatzea.
  - EI1.4 Jendea zuzentzeko estiloak deskribatzea.
  - EI1.5 Jendea motibatze moduak deskribatzea.
  - EI1.6 Gidaritza-motak baloratzea.
  - EI1.7 Jendearen gaitasunak kudeatzeko prozesuak eta gaitasunak eskuratzeko moduak deskribatzea.

##### Edukiak

#### 1. Fabrikazio mekanikoko ekoizpen-prozesuetako jendearen zuzendaritza.

- o Agintzeko estiloak.
  - Zuzendaritza eta/edo gidaritza.
  - Agintzearen papera, definizioa.
  - Zuzendaritza-estiloak.
  - Gidaritzari buruzko teoriak, ikuspegiak.
  - Paul Hersayren egoera-gidaritzaren teoria.
- o Taldeen eta lan-bileren zuzendaritza eta dinamizazioa:
  - Bilera baten etapak.
  - Bilera-motak.
  - Taldeak dinamizatze eta zuzentze teknikak.
  - Parte-hartzaileen tipologia.
  - Bilera baten prestaketa.
  - Bilera baten garapena.
  - Bileretako arazoak.
- o Negoziazioa lan-ingurunean:
  - Negoziazioaren kontzeptua eta elementuak.
  - Negoziazio-estrategiak.
  - Eragiteko estiloak.
- o Gaitasunen kudeaketa: gaitasun-profilak prestatzea, eta gaitasunen eskuratzeko, garapena, aktibatzea eta inhibizioa.
- o Motibazioa lan-ingurunean:
  - Motibazioaren definizioa.
  - Motibazioaren teoria nagusiak.

- Motibazio-faktoreen diagnostikoa.
- Jendea motibatzeke moduak.
- Arazoak ebaztea eta erabakiak hartzea:
  - Lan-ingurune harremanek eragiten dituzten gatazka-egoerak ebaztea.
  - Arazoak ebazteko prozesuak.
  - Erabaki batean eragina duten faktoreak.
  - Taldean erabakiak hartzeko metodo ohikoenak.
  - Erabakiak hartzeko prozesuaren faseak.

## 2. Fabrikazio mekanikoko ekoizpen-prozesuetako komunikazioa.

- Talde bateko kideei zereginak esleitzen dizkieten dokumentuak prestatzea.
- Argibideak ahoz ematea, helburu batzuk lortzeko.
- Komunikazio-motak.
- Komunikazio-prozesuaren etapak:
  - Igorleak, transmisoreak.
  - Kanalak, mezuak.
  - Hartzaileak, deskodetzaileak.
  - Feedbacka.
- Komunikazio-sareak, kanalak eta baliabideak.
- Komunikazioa zailtzen duten zailtasunak/oztopoak.
- Pertzepzioaren datuak manipulatzeko baliabideak.
- Portaera sortzen duen komunikazioa.
- Informazioaren kontrola. Informazioa zuzendaritzaren funtzio gisa.

### C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Eraikuntza metalikoetako ekoizpena.